**NEW DIRECTORS EPAIMAHAIA** EDUARDO CRESPO

# “Arriskuak merezi du saria, ez perfekzioak”



ALEX ABRIL

SERGIO BASURKO

“Izugarria da Argentinako Gobernuak zinemarekiko eta oro har kulturarekiko adierazten duen gorrotoa. Proiektuak eten eta laguntzak emateari utzi dio erabat”, haserre mintzo zaigu New Directors Epaimahaiko kide argentinarrak. Baina gatozen Donostiara ekarri duen egitekoaz hitz egitera.

Lehenik eta behin esan dezagun Eduardo Cresporen *Nosotras nunca moriremos* filma Urrezko Maskorrerako hautagai izan zela 2020an eta geroztik harreman estua izan du Donostiarekin. “Oparia izan zen epaimahaikide izateko deitu nindutenean. Ikusmira Berriak programaren erresidentzia batean parte hartu nuenean oso jende abegikorra zaretela ohartu nintzen. Ez nahi bezainbeste baina aldian-aldian Donostiara etorri naiz. Orain, aldiz, arraro samar sentitzen naiz epaimahai garrantzitsu baten parte izateagatik, eta gainera, uste dut ez dela erraza besteen lana epaitzea”, apal esan du.

Apenas izan du astirik beste epaimahaikideak ezagutzeko baina “horretan ari gara; elkar ezagutzen eta gutxieneko funtzionamendu arauak zehazten. Eskarmentu handiko profesionalak dira, herrialde eta zinema-lanbide ezberdinetakoak. Nire lehenengo lanak guztiz independenteak ziren, beraz, ondo ulertzen ditut zuzendari berri baten atakak”. Diruz hornituta dagoen New Directors saria bultzada handia izan daiteke zuzendari batek bere hurrengo pelikula gauzatu, edo behintzat, bideratu dezan. “Horregatik, txukun egindako filmak baino edozein zentzutan arriskua hartu duten zinegileen lanak lehenetsiko ditut. Lehen edo bigarren film batek ez du zertan perfektua izan behar. Baina, bai kontatzen duenagatik nahiz pertsonaien eraikuntzagatik pelikulak ‘zeharkatu’ egin behar nau”, azaldu digu Eduardo Crespok.

Argentinarrak, orain esaten den bezala, *multitasking*tzat du bere burua. Orain bi urte Entre Ríoseko zinema-jaialdiko zuzendari artistikoa da, beste zuzendarien filmetan argazki-zuzendari dihardu eta oro bat bere zinema-proiektuak aurrera ateratzen saiatzen da: “ofizio honetan denetarik egin behar da bizimodua ateratzeko”.

Gaur egun bere film berria garatzen ari da, *La gruta del viento*, 2021ean Ikusmira Berriak programarako hautatua izan zena. “Datorren urtean hasiko da filmaketa, Italian”.

Hasierako iruzkinaren harira, Crespok bihotzez eskertzen du Zinemaldiak argentinar zinemari eskaintzen dion sostengua: “salbuespeneko egoeran bizi gara, Gobernuak bizkarra eman dio zinemari, baina hiri handietatik kanpo hasi dira kultur-kimu berriak sortzen”. Ez da gaitzik, onik ez dakarrenik, behintzat.

### A prize that really makes a difference

The Argentine filmmaker and director of photography Eduardo Crespo is a member of the New Directors Jury at this year’s Festival. He confesses that it feels really strange to be judging the work of his peers but he admits that the financial stimulus provided by prizes at Festivals serves as a really important platform when it comes to making second films. As for the current situation of cinema in Argentina, faced with the Milei government’s crusade against culture in general, he says it’s really worrying and that film and cultural production in the country has been brought to a total standstill.

---

**JURADO NEW DIRECTORS** AULONA SELMANI

# “Siento que esta experiencia como jurado me va a ayudar en mi carrera”

IKER BERGARA

Desde que hace tres ediciones esta joven cineasta suiza se estrenara en el Festival para participar como Jurado en Nest, no ha parado de venir año tras año. En esta ocasión, su presencia en San Sebastián se debe a que ha sido invitada para ser uno de los cinco miembros del jurado de la sección New Directors en la que realizadores noveles compiten con sus primeras y segundas obras. “Que el Festival me eligiera para esta labor fue una sorpresa y una alegría. Después de tres años viniendo ya me siento como en casa”, asegura Aulona Selmani

Como los cineastas que valora, ella se convertirá en realizadora novel dentro de poco cuando concluya su primer largometraje. Los premios que ganó en diferentes festivales internacionales con *And The Wind Weeps*, el cortometraje que justamente presentó el año pasado en la sección Nest, le abrió las puertas para poder rodar su ópera prima, cuyo título será *Serra*.

Aunque se trata de una producción suiza, su película transcurre en Kosovo, lugar en el que Selmani creció. Según cuenta, vivió en un pueblo muy pequeño en el que apenas llegaba Internet por lo que “aprovechaba el tiempo escribiendo relatos”. Para Selmani, su madre fue “su gran inspiración” y la que le transmitió su pasión por todo tipo de disciplinas artísticas: música, cine, pintura… “Mi madre también se dedicaba al arte, era pintora”, señala la cineasta.

Aulona Selmani estudió cine en la Universidad de Pristina, capital de Kosovo. “Aunque se trata de un centro muy pequeño, cada vez salen más cineastas de él”, cuenta. De esta escuela, Selmani destaca su carácter práctico. “Cada año teníamos la posibilidad de rodar dos cortometrajes, lo que te permite aprender y explorar hacia dónde quieres llevar tus historias”.

De hecho, son los cortometrajes que realizó en la escuela de cine los que le permitieron venir a San Sebastián y ganar premios en el Festival Internacional de Cortometrajes de Bialystok y el Festival de Gäsli, entre otros.



ALEX ABRIL

Aparte de todo, cabe señalar que Selmani está a punto de protagonizar la película *The White Club* dirigida por Michel Penetta. Aunque a lo largo de su vida muchos amigos y familiares le habían dicho que tenía cualidades para la interpretación, hasta ahora no se había atrevido a dar el paso. Que un profesor de interpretación que participó en uno de sus cortos se lo dijera fue el “empujón que le faltaba”.

La polifacética cineasta reconoce que ser jurado está siendo muy enriquecedor para ella. “Disfruto mucho viendo películas y debatiendo sobre ellas con mis compañeros. Siento que esta experiencia como jurado me va ayudar en mi carrera”, asegura. Aunque sabe que en un festival es habitual conocer y charlar sobre películas con mucha gente interesante, Selmani también valora estar sola. “Me gusta perderme por la ciudad o tomar un café en el Boulevard mientras leo un libro”.